



XVIII. JOKIN ORMAETXEA MARTITTEKO IGOERA

AURKIBIDEA

1. Aurkezpena.....	3
2. Informazio gehigarria	3
3. Izen ematea eta dortsal banaketa	4
4. Kontsignak eta duxak	5
5. Amaierako anoa gunea	5
6. Osasun zerbitzua	5
7. Sariak.....	5

1. Aurkezpena

Martitteko igoera hamazortzi urtez antolatu du Jokin Ormaetxea Txirrindulari Elkarteak. Lehen, Andramari festak aprobetxatuz, abuztuan egiten genuen. Aurten ere, aurreko urtean bezala, jende gehiago erakartzeko asmoz, data aldatu dugu dugu eta uztailaren 4an izango da. Horrez gain, aurten bigarrenko aldiz korrikako modalitatea gehitu diogu eta beraz, bi lasterketa eskeiniko dira, korrika eta bizikleta. Partaideek bi modalitateetan parte hartu ahal izango dute baina modalitate batean soilik parte hartzea ere posible izango da.

2. Informazio gehigarria

Proba Azkoitiko "Txalon erreka" auzoan hasiko da eta Martitte auzoan amaituko da. Bi puntuen arteko distantzia 3,7 kilometrokoa da eta desnibela 302 metrokoa (%8,4ko batazbesteko malda). Bidea asfaltatuta eta egoera onean dago eta 5 metroko zabalera du gutxi gorabehera. Lasterketaren bide osoa maldan gora izango da eta bidegurutze batzuk daude; guztiak, bolondresekin babestuta egongo dira.

Lasterkarien eta herritarren segurtasuna bermatzeko, lasterketaren aurretik udaltzaingoa joango da bidea itxiz; tartean, bolondresak igoko dira motoetan eta azken partaidearen atzetik anbulantzia igoko da.



KORRIKAKO PROBA	
Irteera ordua	10:00
Distantzia	3,7km
Gehienezko partaide kopurua	100 partaide

BIZIKLETAKO PROBA	
Irteera ordua	11:15
Distantzia	3,7km
Gehienezko partaide kopurua	100 partaide

3. Izen ematea eta dortsal banaketa

Izen ematea www.rockthesport.com webgunean egingo da apirilaren 1etik aurrera. Proba bakoitzaren prezioa 15€-koa izango da eta dortsalak egunean bertan banatuko dira herriko plazan. Bi ordutegi egongo dira dortsalak jasotzeko; korrikako lasterkarientzat 8:30etatik 9:40ra eta txirrindularientzat 8:30etatik 10:45ra.

Izen emateak, osteguna 2, iluntzeko 21:00etan itxiko dira.



4. Kontsignak eta dutzak

Motxilak gordetzeko aukera egongo da irteera gunean, eta jasotzeko berriz, Martitte auzoan.

Dutzak Azkoitiko kiroldegian egongo dira 11:00etatik 13:00etara.

5. Amaierako anoa gunea

Probak amaitu ondoren, parte-hartzaile guztientzat hamaiketako eskeiniko da Martitteko auzoan.

6. Osasun zerbitzua

Anbulantzia bat egongo da. Bi sorosle anbulantzia barruan egongo dira eta bat Martitteko plazan. Bi probetan azken partaidearen atzetik igoko da anbulantzia.

7. Sariak

Sariak 12:00etan banatuko dira Martitteko plazan.

	1º		2º		3º	
	Neska	Mutil	Neska	Mutil	Neska	Mutil
Bizikleta Absolutoa	Garaikurra + txapela + 100€		Garaikurra + 50€		Garaikurra + 25€	
Korrika Absolutoa	Garaikurra + txapela + 100€		Garaikurra + 50€		Garaikurra + 25€	
Errekorra hausten duenarentzat	75€					
Lehenengo kilometroa	Sari berezia					